



ESKOLA KIROLEKO LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAKO AKTA

2015eko maiatzaren 7an, 18:15ean, ohiko bilera egin du Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluak, Kirol Etxeko Juan Muguerza aretoan, deialdiaren gai zerrenda osatzen duten gaiak aztertzeko.

Bileran, pertsona hauek izan dira:

- * Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik
 - Asier Sarriegi Zumarraga, Kiroleko zuzendari nagusia, bilerako lehendakari gisa
 - Aitor Arozena, Kirol Zerbitzuko burua
 - Imanol Fernández de Larrinoa, Kirol Zerbitzuko teknikaria
 - Ramón Martiarena, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluko idazkaria

- * Gipuzkoako udalen aldetik
 - Arkaitz Angiozar, Lezoko Udalekoa
 - Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa
 - Aser Lertxundi, Zarauzko Udalekoa

- * Kirol federazioen aldetik
 - Tetxus Barandiaran, Mendizale Federaziokoa
 - Teresa Ortega, Judo Federaziokoa
 - Alicia Figueroa, Kirol Egokituen Federaziokoa
 - José Ángel Rial, Gipuzkoako Karate Federaziokoa

- * Ikastetxeen aldetik
 - Oinatz Agirre, Arrasate Herri Eskolakoa
 - Fernando Urien, Zarauzko Lizardi Institutukoa

- *Dokumentazio hau banatu dute:*

. *2015eko otsailaren 25eko bileraren akta*

. *Eskola Kiroleko 2015-2016 ikasturteko jarduera programaren zirriborroa*

1) *2008ko ekainaren 18ko bileraren akta irakurtzea eta onartzea*

Onartu egin da.

2) *Eskola Kiroleko 2014-2015 ikasturteko jarduera programa abian jartzean izandako gorabeherak.*



Imanol Fernández de Larrinoak bi gorabeheraren berri eman du:

- Gorabehera larri bat izan zen infantil kategoriako errugbi partida batean, Hernaniko eta Zarauzko taldeen artekoan: Hernaniko taldea zelaitik erretiratu egin zen. Itzulerako partidari, berriz, ez zen gorabeherarik izan.
- Futbol partida batean, irain larriak bota zizkion ikusle batek arbitroari. Ikusleak taldeetako batekin zerikusia zuela jakitean, Gipuzkoako Futbol Federazioko Lehiaketa Batzordeak zehapena ezarri dio taldeari. Aurten, halako bigarren kasua da, eta pentsatu egin beharko litzateke halako gorabeherari nola erantzun. Antzekoak gertatu omen dira beste eskualde batzuetan ere.

Fernando Urienek esan duenez, bere eskualdean nahiko maiz izaten dira halako gorabeherak: gurasoek arbitroak mehatxatzen eta iraintzen dituzte. Hori gerta ez dadin, liburuxkak banatzen ari dira, eta beste euskarri batzuetako mezuak zabaltzen.

Imanol Fernández de Larrinoak gogorarazi du zer komentatu zuten Kontseiluaren aurreko bileran jardunbide egokiei buruz.

Aser Lertxundik proposatu du protokolo bat prestatzea halako egoerak tratatzeko.

Fernando Urienek kontatu duenez, plataforma bat sortu dute Eskola Kirolaren alde. Dekalogo bat duten txartelak banatu zituzten, eta kartelak ipini.

Alicia Figueruok komentatu duenez, gurasoei eskatu beharko litzateke horren inguruko konpromiso bat sinatu dezatela.

Tetxus Barandiaranen iritziz, ondo legoke katalogoa gurasoei pasatzea, nork bere borondatez sina dezan.

Arkaitz Angiozarrek komentatu du nola doan jardunbide egokien eskuliburua prestatzeko ardura duen taldearen lana. Kontseiluaren azken bileraz geroztik sortu da taldea, Imanol Fernández de Larrinoak eta berak osatua, eta beste pertsona batzuen partaidetzara irekia. Azken bi urte honetan, ikasleen jarrera “harroxkoak” azaltzen ari dira, eta, larriak ez izan arren, kezkarriak dira.

Eneritz Maioraren iritziz, beharrezkoa da gurasoei eta ikasleei prestakuntza ematea Eskola Kirolaren balioei buruz.

Tetxus Barandiaranek proposatu du joko garbiari buruzko kanpaina bat egitea, zelaitik kanpo ere bai.

Imanol Fernández de Larrinoak komentatu du egutegi arazoak izan direla zenbait modalitate eta kategoriatan.

Fernando Urienek esan du futbol deialdi bat topatu duela, zertarako den inork ere ez dakiena.



Imanol Fernández de Larrinoak erantzun du beti egoten direla horrelako jarduera irregularrak. Hala ere, horrelako jokaerei bide ematen die errendimenduan hasteko taldeek eta ikastetxe baimenduetakoek lehiaketako jarduerak luzaroan ezin egiteak. Asmoa da abendutik otsailera bitartean, hau da, kros denboraldian, jardunaldiren bat sartzea halako jardueretarako. Ekainean, Euskadiko Jokoen gain metatzen dira lurraldeko finalak, eta arazoak sortzen ari dira egutegietan jarduerak elkarren gainean ezar ez daitezten. Berak espero du datorren urtean gauzak hobeto joatea. Eguraldi txarragatik bertan behera gelditutako bi jardunaldiez ere hitz egin du.

3) Eskola Kiroleko 2015-2016 ikasturteko jarduera programaren zirriborroa

Imanol Fernández de Larrinoak adierazi du ez dagoela aldaketarik zirriborroan, orain amaitzen den ikasturteko programaren aldean. Dena dela, oso litekeena da aldaketak izatea proposamenak egiteko zabaltzen den epean.

Arkaitz Angiozarren ustez, badago data-aldaketaren bat.

Aser Lertxundik galdetu du ea badagoen ezer abian lehen aipatu diren gorabeherei aurre egiteko ikuskapen plan bati dagokionez.

Imanol Fernández de Larrinoak erantzun du aurten ez dagoela ezer aurreikusita horri buruz. Azaldu duenez, ikuskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenean dago. Beste gauza bat da eskualdeetan gorabeherei buruzko protokoloak prestatzea. Bi gauzak bateragarriak dira.

Asier Sarriegik esan du Foru Aldundian ez dagoela baliabiderik ikuskapenak abiatzeko.

Alicia Figueroaren iritziz, zerbait gehiago egin beharko litzateke, irregulartasunak saihesteko.

Arkaitz Angiozarrek proposatu du behatzaile batzuk edukitzea eskualdeetan, Eskola Kiroleko jardueretan zaintzaile aritzeko. Komentatu du, baita ere, zer-nolako arazoak dauden herri mailan, zeren eta, askotan, eragozpenak egoten baitira nahitaez aurkeztu beharreko salaketak herriko klubei aurkezteko.

Jarraian, eztabaida bat piztu da gai horiei buruz, eta bertaratutako pertsona guztiek parte hartu dute. Honelakoak izan dituzte eztabaidagai: pixkanaka-pixkanaka gai horiei aurre egiten joatea, udalen inplikazio maila, gorabeherei lotutako arazo juridikoak eta abar.

Imanol Fernández de Larrinoak ohartarazi du zer-nolako betekizuna bete beharko luketen lurralde federazioek bai diziplina arloan bai arau-hauste administratiboen arloan bai horiekin lotutako beste arlo batzuetan ere.

Fernando Urienek komentatu duenez, orain dela pare bat urte, saskibaloian, arbitro zaharragoak bilatu ziren.



Asier Sarriegik bi kontu azpimarratu ditu: Eskola Kirolean parte hartzen duten eragilean jarrerak, eta kirol hori arautzen duten arauak. Bi kontuak protokolizatu egin beharko lirateke.

4) Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua partez berritzeko hauteskundeak

Imanol Fernández de Larrinoak jakinarazi duenez, bihar bukatuko da epea –maiatzak 14– hutsik dauden postuak betetzeko hautagaitzak aurkezteko, eta federazioen estamentuan bakarrik egin beharko dira bozketak.

Baita ere adierazi du zeintzuk aterako diren Kontseilutik, nahiz eta berrautatuak izan daitezkeen: Orereta Ikastola –Errenteria– (Bidasoa-Oiartzun) eta Joxe Miel Barandiaran –Ataun– (Goierrri-Oria); herriak: Hernani (Donostialdea), Zarautz (Urola-Kosta) eta Elgoibar (Deba); eta federazioak: Kirol Egokituak eta Karate.

5) Eskola Kiroleko monitore ikastaroak

Imanol Fernández de Larrinoak azaldu duenez, ikastaro horretako bi txandetan izena eman dutenak, guztira, 506 lagun izan dira, eta gainditu ez dutenak, berriz, 20. Asmoa da ikastaro horiek hiru aldundien artean antolatzen jarraitzekoa, harik eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Herrian kirol lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege Aurreproiektuak daukan arauketa berria abian jarri arte.

Aser Lertxundik galdetu du ea nola doan legearen izapidetza.

Asier Sarriegik erantzun du alegazio batzuk aurkeztu zizkiola Aurreproiektuari Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Imanol Fernández de Larrinoak esan duenez, Eskola Kirolari dagokionez, aurreikusita dago 2018. urtean sartzea indarrean, baina berak ez du uste posible izango denik.

Fernando Urienek komentatu duenez, araudi berriak profesionalizatu eta unibertsalizatu egiten ditu kirol titulazioak: berekin dakar kirol jardueren kostu handiago bat, eta zeinek hartuko du bere gain?

Asier Sarriegiren iritziz, banatu egin beharko da.

Arkaitz Angiozarrek boluntarioraz hitz egin du, mantendu egingo baita.

Fernando Urienek adierazi duenez, kirol monitoreen titulazioek irakastordu asko hartzen dituzte.

Imanol Fernández de Larrinoak komentatu duenez, oraindik defintzeko dago egungo titulazioak baliozkotzeari buruzko gai guztia eta egin daitezkeen egokitzapenei



buruzkoa ere bai. Diru aldetik, % 30 edo % 40 garestiagoa izango litzateke. Debagoienean, eztabaidatzen ari dira ea zeinek hartuko duen bere gain kostu handiago hori.

Fernando Urienek bere esker ona agertu nahi dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, monitore ikastaroen inguruan izan duen jarreragatik. Bere eragozpen bakarra aurkitzen du ikastaroak egiteko egutegian, azterketek ia opor garaiekin kointziditzen dutelako (Eguberriak eta Aste Santua).

Imanol Fernández de Larrinoak adierazi duenez, monitore ikastaroek, hasiera batean, 45 irakastordu zituzten, eta esperientziak erakutsi zuen gehiegi zirela, eta behar baino trinkoagoak, gainera. Gaur egun, berriz, irakastordu teorikoak 20 dira, gehi praktikak. Egutegiaren gaiak ez du konponbiderik.

Alicia Figueroak proposatu du ikastaroko egitarauan aniztasunari buruzko gai gehiago sartzea.

Imanol Fernández de Larrinoak esan duenez, asmoa da egitaraua generikoa izatea, eta aurreikusten da berariazko modulu batzuk egitea kirol modalitate jakin batzuei buruz. Bertaratutakoak animatzen ditu horri buruzko proposamenak egin ditzaten.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat jo dute, hasieran adierazitako eguneko 19:25ean.

Lehendakaria
Idazkaria